

Santa Kruz, apaiza

Deia, 1983-07-30.

Santa Kruz apaizaren ekintzak eragin handia izan zuten idazleen artean; *Zalacain el aventurero* nobelan, Barojak deskribatzen du apaizaren "goardia beltza".

Barojak gaisotzat jo zuen. "En el fondo, el cura era un enfermo, convencido de su misión providencial".

Integrista zen, zerukoak eta lurrekoak denak, eta guztiak *maila berean*, sartzen zituen horietakoa. Ez da inoiz falta izaten. Munduaren kontzepzio hau duena fanatikoa da, Jainkoaren izenean edozer egin eta santuen artean sentitzen dena, gaiso dago. Gauza bat da behin gerran sartu ezker ezinbesteko gertatzen diren espioien fusilamentuak egitera behartua izatea, esate baterako; gerra ez bait da jolasa!

Baina Aita Santa Kruzek Endarlazan 1873garrengo ekainaren 4ean egin zuenak erretratatu du.

Olazabal, bere biografoak,¹ aipaera alderdikaria egiten dio. Nik neuk izan dut eskuetan, bestalde, infernu horretatik ihes egin ahal izan zuen batek Irunen norbaiti diktatutako agiria.² Honek dioenak itxuradunagoa dirudi, eta hara hemen laburpena: Gertakaria baino egun batzu lehenago Santa Kruzek eraso zion Endarlazako fuerteari, baina egun hartan Mikeleteen aldia egokitu, eta horiek gauez badaezpada inguruko gaintara erretiratu zirenez gero, erasoari ongi eutsi zioten, eta *bi mutil hil eta bi kabo zauritu zizkieten Santa Kruzeri*. Honek haserratu omen zuen apaiza. Mikeleteei txanda egitera karabineroak etorri ziren: 39, teniente baten mende; "apaizak jakin zuen, eta metro bat luze zuen brontzeko kanoia Aritxuletatik ekar arazi eta gauez presentatu zen"; probako tiro batzu egin zituenean tenientea konturatu zen kanoiaren aurka ez zegoela defentsarik, eta bandera zuria igo arazi zuen: "No hay cuartel", esan omen zioten apaizaren alderditik: "¡A cuchillo vais a morir!" Ezin bestean, karabineroak ihesari eman zioten goizeko zortzi terdietan Bidaso bazterretik; lau-bost tiro irten ziren, inork ez daki nondik, eta Santa Kruzen gizonak atzetik jarri zirenean gertatu zen izu hura; "zauritua zegoen bati burusian bildu eta su eman zioten"; batzu ibaian ito ziren, eta uretan geratu ziren beste batzuk "tiroa buruan edo bizkarrean zuten"; errenditu zen talde bat Bera aldera eraman zuten errepidetik, 21 hil zituzten bidean, errespetatu zuten bakarra Aranoko Jose Olaizola izan zen, anaia karlistetan zebilelako; txapela jarri zioten, babes gisa, eta oinez Lesaka bidean konfidantza osoan zihoala "belarritik sartu zioten tiroa".

Gero, Santa Kruzek erre egin nahi izan zituen gorpuak Berako hilerrian, baina bertako erretoreak, Victor Maria Prosterenak, ez zion hori egiten utzi.

Orixe ahalegintzen da, Apaizaren jokaera ulertzen. Honen jokabide batzuen *zergatia* ulergarri zaigu guri ere, baina zail da zuribidea.

¹ *El cura Santa Cruz* (semblanza), J. Olazabal, Vitoria 1928.

² *Ataque de Endarlaza*, Irunen 1907an fetxatutako eta izenpetu gabeko eskuskribua.